



EBAZPENA, Polizia eta Larrialdietako Euskal Akademiako zuzendari nagusiarena, Kirol probetan eta txirrindularien ibilaldietan laguntzaileen eginkizunetarako motorzaleen prestakuntza ikastaroko deialdiaren oinarrietan ezarritako trebetasun probarako deitutako pertsonen zerrenda argitaratzen duena.

2013ko irailaren 2ko Ebazpenaz, Kirol probetan eta txirrindularien ibilaldietan laguntzaileen eginkizunetarako motorzaleen prestakuntza ikastaroko deialdia egin zen.

Izena emateko epea igarota eta deialdiaren 2.1c) eta 3.3 oinarrietan ezarritakoarekin bat etorritz, ondorengo

EBATZI DUT:

LEHENA.- Trebetasun proba egitera deitutako pertsonen zerrenda argitaratzea. Aipatutako proba, Polizia eta Larrialdietako Euskal Akademian izango da urriaren 2 eta 3an izango da, 13:30ean, I. eta II. eranskinetan adierazitako banaketaren arabera.

Trebetasun probara aurkeztuko den pertsona orok A/A2 gidabaimena eta horren kopia bat ekarri beharko dituzte.

BIGARRENA.- Ebazpen hau Polizia eta Larrialdietako Euskal Akademiako Iragarki-oholean eta web orrialdean argitaratzea.

Arkautin, 2013ko irailaren 24an.


Malentxo Arruabarrena Julián
Polizia eta Larrialdietako Euskal Akademiako zuzendaria


POLIZIA ETA LARRIALDIETAKO EUSKAL AKADEMIA
ACADEMIA VASCA DE POLICIA Y EMERGENCIAS
EUSKO JAURLARITZAKO ERAKUNDE AUTONOMIADUNA
ORGANISMO AUTÓNOMO DEL GOBIERNO VASCO